



Ipuinaren harian

AZERIAREN* EHIZA



Historia. Azeriaren ehizak tradizio handia dauka Britainia Handian. Lehen datuak erromatarren denborakoak dira. Denbora hartan jada britainiarrek azeriak harrapatzen zituzten, txakurrek lagunduta.

Gero, Erdi Aroan,* azeriek gaixotasun hilgarri bat pasatzen zioten jendeari: izurria.* Horrexegatik hiltzen zituzten orduan. Dena den, gero aristokratek kirol moduan hartu zuten azeriaren ehiza.

Gaur egun. Ehiztariak zaldi gainean eta txakurrak korrika bizian haien aurretik, azeria nekatu arte. Kirol horretan azeriak ihes egiteko* aukera gutxi zeukan, eta animalia hau apurka-apurka desagertzen hasi zen.

Ekologistek lan handia egin zuten ehiza krudel honen aurka, eta XXI. (hogeita batgarren) mendearen hasieran Eskozia, Gales eta Ingalaterrako parlamentuek azeriaren ehiza debekatu zuten.

azeri:

azeria otsoa baino txikiagoa da eta oso abila da oiloak eta ardiak harrapatzen. «Azeriak gorriak izaten dira.»

Erdi Aro:

orain dela zortziehun edo mila urte, gutxi gorabehera. «Erdi Aroan Europa gerraz eta gazteluz bete zuten.»

izurri:

gaixotasun hilgarri hau *Yersinia pestis* bakteriak sortzen du. «Izurriak milaka pertsona hil zituen Europan.»

ihes egin:

alde egin, eskapatu. «Lapurrek ertzainak etorri baino lehenago ihes egin zuten bankutik.»



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



ULERMENA

Erantzun itzazu honako galdera hauek:

1.- Zer gertatzen zitaion Framton Nuttel-i?

2.- Zer gomendatu zion medikuak Framton Nuttel jaunari?

3.- Zer eman zion arrebak Framton-i? Zertarako?

4.- Herrira heldu zenean, norengana joan zen lehenengoz?

5.- Zer gertatu zen orain dela hiru urte, neskatoaren arabera?

6.- Zergatik zeukan atea zabalik Sappleton andreak?

7.- Nortaz hitz egin zion Sappleton andreak Framton Nuttel-i?

8.- Nor ikusi zuten hurbiltzen bat-batean?

9.- Zer egin zuen Framton Nuttel-ek orduan?

10.- Zer azalpen eman zien neska gazteak Sappleton jaun-andreei?



GRAMATIKA

Nola ~~nolako~~(a)(k)

“Framton Nuttel jauna gaixor**rik** zebilen. Oso gaizki zegoen nerbioetatik”. (1.orrialdea)

“-Lasa**igo** bizi behar duzu- esan zion medikuak”. (1.orrialdea)

“Arreba oso kezkatu**ta** zegoen”. (1.orrialdea)

“Bere nebari **lasai** bizitzea komeni zitzaion”. (1.orrialdea)

“Bidaia lasa**ia** izan zen”.(1.orrialdea)



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



NOLAKOA naiz? Pertsona lasaiA naiz./urduriA naiz.
 NOLAKOAK gara? Pertsona lasaiAK gara./urduriAK gara.
 Baina
 NOLA nago gaur? Gaur lasaiØ/urduriØ nago/nabil/sentitzen naiz/...
 Gaur nago/nabil/sentitzen naiz/...
 NOLA gaude gaur? Gaur lasaiØ/urduriØ gaude/gabiltza/sentitzen gara/...
 Gaur urduriØ gaude/gabiltza/sentitzen gara/...

Osatu esaldi hauek:

- Gizon horiek oso pertsona triste _____ dira.
- Eztabaidatu dute eta orain triste _____ sentitzen dira.
- Partida oso nekagarri _____ izan zen, horregatik, oso nekatu _____ amaitu zuten umeek.
- Klase hau aspergarri _____ izan da, horregatik, ikasle guztiok aspertu _____ gaude.
- Garrantzitsuena poz _____ bizitzea da.
- Umea gaixo _____ zegoen eta ez zen eskolara joan.
- Zer egin behar da zoriontsu _____ izateko?



HIZTEGIA

Hitz hauek ipuinean agertu dira.

1.-Lotu haien sinonimoekin:

azken boladan
 arineketan
 azaldu
 bat-batean
 ikaratu
 larritu
 zur eta lur

halako batean
 harrituta
 beldurtu
 korrika
 larritu
 esplikatuta
 azkenaldian

2.-Orain, binaka jarrita, esaldiak sortu hitz horiek erabiliz.



MINTZAMENA

• Non bizi, hirian ala herrian?

Framton Nuttel jauna hirian bizi zen, baina herrira bidali zuten medikuek, nerbioetatik sendatzeko. Dena den, Matildak ez zion asko lasaitzen lagundu... Hitz egin ikaskideekin.

- Non bizi zara, herri batean ala hiri batean?
- Nolakoa da herri hori edo hiri hori?
- Zenbat biztanle zarete?
- Zer nahiago duzu, herria ala hiria? Zergatik?

• Zertan laguntzen digute txakurrek?

Matildaren osabak eta haren anaia txikiek txakurra eraman dute ehizan. Zertan laguntzen diote txakurrek pertsona hauetako bakoitzari? Erantzun eta komentatu.



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



Artzainei
Jende zaharrari
Suhiltzaileei

Itsuei
Ertzainei
Mendizaleei

• Gezurria zara?

Matilda gezurri hutsa da; gezurrak bata bestearen ondoan asmatzen ditu. Eta zu, gezurria zara?

a) Pentsatu eta kontatu.


- Zein izan da zure gezurrik handiena?
- Nori esan zenion gezur hori? Zertarako?
- Sinetsi zuen berak zure gezurra?

b) Idatzi bi egia eta gezur bat paper batean. Gero irakurri hirurak lagunei eta galdetu: zein da gezurra?

2.ipuina: Bizantzioko arrautzopila

Ipuinaren harian

MEATZARIEN * GREBA LUZEA



Arrazoiak. Industria Iraultzaren denboran ikatza* behar-beharrezkoa zen, lantegiak, trenak eta itsasontziak ondo ibiltzeko. Ikatz hori meatzariak ateratzen zuten lur azpitik.

Meatzarien lana benetan gogorra eta arriskutsua zen, baina oso diru gutxi irabazten zuten. Nagusiek, ordea, diru piloa irabazten zuten, ezer egin gabe. Horregatik, meatzari britainiarrek grebara jo zuten.

Ondorioak.* 1912an (mila bederatzehun eta hamabian) Britainia Handiko milioi bat meatzarik hilabeteko greba luzea egin zuten. Ikatzik gabe, Europa osoko lantegiak, trenak eta itsasontziak geldirik egon ziren denbora horretan.

Greba hartan langileek lan baldintza hobekak lortu zituzten, eta gutxieneko soldata* ere bai. Gainera, langile haiek Ingalaterrako Alderdi Laborista sortu zuten.

meatzari:

langile honek mineralak ateratzen ditu lur azpitik. «Meatzariaren Museoa Abanto-Zierbenan dago»

ikatz:

mineral beltza. «Olentzerok ikatza egiten du mendian.»

ondorio:

zerbait gertatu ondoko egoera. «Auto istripu asko gidarien despisteen ondorioa izaten dira.»

gutxieneko soldata:

soldata minimoa. «Gazte askori gutxieneko soldata besterik ez diete ordaintzen.»



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



ULERMENA

Esan ezazu gertaera hauek egia ala gezurra diren:

1.- Chatel-Monkheim jaun-andreak sozialistak ziren.

EGIA GEZURRA

2.- Siriako Dukea gonbidatu zuten udazkeneko arratsalde batean.

EGIA GEZURRA

3.- Sophie ez zegoen batere pozik Dukearen bisitagatik, sozialista eta klasismoaren aurkakoa zelako.

EGIA GEZURRA

4.- Zerbitzariak greba egitea erabaki zuten Chatel-Monkheim jaun-andreek Gaspare sukaldaria bota nahi zutelako.

EGIA GEZURRA

5.- Gaspare sukaldariak orain dela bi urte ez zuen parte hartu Lord Grimforden etxeko langileen greba.

EGIA GEZURRA

6.- Gaspare oso ona zen Bizantzioko arrautzopilak egiten.

EGIA GEZURRA

7.- Zerbitzari guzti-guztiek erabaki zuten greba egitea.

EGIA GEZURRA

8.- Sophiek Gaspare bota zuen azkenean, neskameak Sophie orraztu ahal izateko.

EGIA GEZURRA

9.- Gaspare onartu arte, sukaldarien sindikatuak greba egitea erabaki zuen.

EGIA GEZURRA

10.- Medikuek Sophieri lagunei bisitak egitea debekatu zioten.

EGIA GEZURRA



GRAMATIKA

Denborazkoak

“(…) afaltzeko ordua **baino lehen**, Sophie Chatel-Monkheim bere logelan zegoen, ispiluaren aurrean”.
(9.orrialdea)

“**Orain dela** bi urte Lord Grimforden etxean ibili zen lanean”.(10.orrialdea)

“Nik Gaspareri bere dirua ordaindu **eta gero**, nire ilea orrazten jarraitu behar duzu”.(13.orrialdea)

“Sophiek areto zabal batean bildu zituen guztiak, afaltzeko ordua heldu **arte**”.(14.orrialdea)



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



Osatu esaldi hauek denborazkoak erabiliz:

- Umeek, ohean sartu _____, logela txukuntzen dute.
- Kozinatu _____, sukaldea hankaz gora geratzen da.
- Ez dut oso ondo gogoraten, baina uste dut _____ 7 urte izan zela.
- Azterketa egin _____, asko ikasi beharko duzu.
- Olentzero, _____, pertsonaia beldurgarria zela esaten dute.
- Haur horrek egunero egiten du negar, bere gurasoak etorri _____.
- Kafea hartu _____ ezinezkoa da lo egitea.
- Athletickek partidua irabazi _____ inor ez zen sofatik altxatu.



HIZTEGIA

Hitz hauek ipuinean agertu dira.

1.-Lotu haien sinonimoekin:

Arrautzopil(a)	Lanuzte(a)
Batzar(ra)	Agian
Beharbada	Tortilla
Lagun(a)	Gogoetasu
Pentsakor	Bilera
Orraztu	Ilea apaindu
Greba	Adiskide(a)

2.-Orain, binaka jarrita, txertatu esaldietan:

- Osabak, txikitan, _____ egiten zigun gosaltzeko.
- Langileek, bihar, _____ egingo dute haien eskubideak babesteko.
- Mikelek, pasa den urtean, Parisen, mundu osoko _____ egin zituen.
- Ohetik altxatzen naizenean, lehoien modura ez ibiltzeko, ilea _____ behar dut.
- Anderri ez zitzaion ondo iruditu zuk esan zenuena. Horregatik, _____ ibili da asteburu osoa.
- Gaur irakasleek _____ dute ikasleen ebaluazioei buruz hitz egiteko.
- Orain, ikusi duzuna ikusi eta gero, _____, ulertuko didazu.



MINTZAMENA

• Sozialistak eta kontserbadoreak

Egiazko sozialista zen Sophie? Duda handiak daude horretaz... Beheko esaldietatik, zeintzuk esan ditu sozialista batek? Eta zeintzuk kontserbadore batek? Aukeratu eta hitz egin.

- Langileek greba egiteko eskubidea daukate.
- Eskola pribatu gehiago egin behar dira.
- Erabaki guztiak nagusiek hartu behar dituzte.
- Zerbitzariak lanordu gehiegi egiten dute.

• Zu ere sukaldari

Gaspere sukaldaria espezialista zen Bizantzioko arrautzopilak egiten. Zu zertan zara “espezialista” sukaldean? Zer dakizu prestatzen?



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



a) Pentsatu eta esan.

- Ni oso ona naiz prestatzen, baina ez dakit prestatzen.

b) Gogoratu eta eman pausoz pauso zeure gustuko janari baten errezeta.

• Denok grebara!

Sophieren etxeko zerbitzariak greba egitea erabaki dute. Zeintzuk dira, zure ustez, zerbitzarien arrazoiak greba egiteko? Asmatu eta azaldu.

1.
2.
3.

3.ipuina: Ipuin kontalaria

Ipuinaren harian

TRENA BRITANIA HANDIAN



Lehen trenak. George Stephenson britainiar ingeniariak lurrun* bidezko lokomotora asmatu zuen XIX. (hemeretzigarren) mendearen hasieran. Tren hark orduko 46 (berrogeita sei) kilometroko abiadura* hartzen zuen. Abiadura handia denbora hartan!

Hiri arteko lehen trenbidea 1830ean (mila zortziehun eta hogeita hamarrean) zabaldu zuten. Manchester eta Liverpool hiriak lotzen zituen.

Trenbide sarea.* Britainia Handiko trenbide sarea apurka-apurka osatu zen. Hasieran konpainia txiki askok egin zituzten trenbideak. Elkarren lehia* ibiltzen ziren eta batzuetan bi konpainiak trenbide berbera egiten zuten, hiri berberak lotzeko...

Gero, Lehen Mundu Gerrako urteetan, gobernuak Britainia Handi osorako antolatu zuen trenbide sarea. Britainiarrena munduko trenbide sarerik zaharrena da.

lurrun:

isurkari (likido) baten gasa. «Lapikotik lurruna irteten hasi da, eta leihoetako kristaletan gelditu da.»

abiadura:

lastertasuna. «Automobilek autopistetan 120 (ehun eta hoge) kilometroko abiadura hartu ahal dute.»

sare:

arrantzaleek sareak zabalitzen dituzte, arrainak harrapatzeko. «Tenis zelaietan sare bat dago erdian.»

elkarren lehia:

batak besteari irabazi nahian. «Txirrindulariak elkarren lehia aritu dira azken esprinteraino.»



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



ULERMENA

Esan ezazu gertaera hauek egia ala gezurra diren:

- 1.- Arratsalde hartan, trenean baino bero handiagoa egiten zuen kanpoan.
EGIA GEZURRA
- 2.- Bagoi batean, konpartimentu zabal batean, bost bidaiari zihoazen.
EGIA GEZURRA
- 3.-Cyrilek ez zuen izebaren ondoan jesarri nahi.
EGIA GEZURRA
- 4.- Neskatoak apustu egin zuen lagun batekin: poesia berbera bi mila aldiz esango zuen.
EGIA GEZURRA
- 5.- Ipuineko protagonista neskato gaiztoa zen.
EGIA GEZURRA
- 6.- Bigarren ipuineko protagonista neskato lotsatia zen.
EGIA GEZURRA
- 7.- Hiru jostailu oparitu zioten neskatoari zintzoa, puntuala eta langilea izateagatik.
EGIA GEZURRA
- 8.- Printzearen jauregian ez zegoen ez erlojurik ez lorerik.
EGIA GEZURRA
- 9.- Ipuineko otsoak txerria jan zuen.
EGIA GEZURRA
- 10.- Umeei ez zitzairen batere gustatu ipuina.
EGIA GEZURRA



GRAMATIKA

HASI aditza

- “Halako batean, mutikoa bere jesarlekua astintzen eta hautsa altxatzen **hasi zen**”. (17.orrialdea)
“(…) Cyril bere jesarlektatik altxatu, izebaren ondoan jesarri eta leihotik begiratzen **hasi zen**”. (18.orrialdea)
“(…) neskato txikia *Madalayra bidean* izeneko poesia behin eta berriz errepikatzen **hasi zen**”. (18.orrialdea)
“Eta umeen izeba ipuina kontatzen **hasi zen**”. (17.orrialdea)

Osatu esaldi hauek:

- Datorren hilean, kirola egin _____ hasi _____ (ni).
- Zu noiz _____ euskara ikasi _____?
- Gaur liburu hau irakurri _____ hasi _____ klasean (gu).
- Iaz, dantza ikastaro bat egin _____ hasi _____.
- Osasungarriago jan _____ hasi nahi dugu.



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



- Umea haserre zegoen eta oihu egin _____ hasi zen.



HIZTEGIA

Hitz hauek ipuinean agertu dira. Txertatu esaldietan:

berber(a)	domina
segur aski	guztira
baietz	baimen(a)
behin batean	era
bistan da	dena den
arrakasta	bikain(a)

- 1- _____, herri txiki batean, neska bat bizi zen...
- 2- _____ bihar euria egingo du.
- 3-Gauzak esateko _____ zaindu behar duzu.
- 4-Kirolari horrek _____ handia eduki zuen aurreko Olinpiar Jokoetan: 3 _____ irabazi zituen.
- 5-Afaltzeko hamar pertsona izango gara _____.
- 6-Gurasoek _____ eman didate goizeko hirurak arte geratzeko.
- 7-Hanka sartzen duzunean, beti gauza _____ esaten duzu: "Ez da nire errua izan!"
- 8-Aktore _____ da, nire ustez; _____ lan handia egin duela.
- 9-Oso ondo gosaldut, _____, oso gose naiz.
- 10- _____ asmatu esaldi guztiak!



MINTZAMENA

- **Trenez joango gara?**

Gizon gaztea, izeba eta hiru umeak trenez doaz. Zuri nola gustatzen zaizu bidaiatzea? Autobusez, automobilez, trenez, hegazkinez, bizikletaz...? Konparatu eta hitz egin.

- Hegazkina garraiobiderik azkarrena da.
- Automobila autobusa baino garestiagoa da.
- Trena beste guztiak baino seguruagoa da.
- Bizikleta garraiobide ekologikoa da.

- **Trenaren leihotik paisaiari begira**

«Jesari nire ondoan eta begiratu leihotik», esan zion izebak Cyrili, eta mutikoak behi batzuk ikusi zituen. Zer ikusten duzu zuk tren baten leihotik?

a) Asmatu eta deskribatu.

- Zein da zure gustuko paisaia? Itsasoa? Mendia?
- Badago jenderik paisaia horretan?
- Nongo paisaia da?

b) Antzertu lagunekin. Trenean, zure aurrean, norbait dago jesarrita. Zer galdetuko diozu? Zertaz hitz egingo duzue?

- **Behin batean**

«Behin batean urruneko herri batean ...», hasi zen gizona bere ipuina kontatzen, eta umeak laster isildu ziren. Ausartuko zara lagunekin batera ipuin ezagun bat kontatzen? Aukeratu ipuina eta kontatu elkarrekin.



Ipuinaren harian

LONDRESKO HOTELIK ZAHARRENAK



Bide bazterreko bentak. Trena agertu baino lehen, jendea zalgurdiz* joaten zen leku batetik bestera. Bidaia luzeetan zalgurdiak bide bazterreko bentetan gelditzen ziren, zaldiak aldatzeko eta jendeak ostatu* moduko haietan zerbait jateko eta lo egiteko.

Gero, jendea trenez bidaiatzen hasi zen, eta orduan ostatu asko agertu ziren tren geltokien ondoan.

Londresko lehen hotelak. Londresen hotelak nahiko berandu agertu ziren, XIX. (hemeretzigarren)mendearen erdialdean. Ordura arte uharteko jende aberatsak etxeak alokatzen* edo erosten zituen, Londresen egun batzuk edo aste batzuk pasatzeko.

Londresko bi hotel zahar hauek oso ezagunak dira: *Claridge's Hotel* izenekoa bertako hotelik zaharrena da (1812), eta *Savoy* hotel famatua lehena izan zen gela bakoitzaren barruan bainugela jartzen (1889).

zalgurdi:

jendea garraiatzeko ibilgailua, zaldi batek edo batzuek tiratua. «Turistak zalgurdiz ibiltzen dira hiria ezagutzen.»

ostatu:

etxe honetan diru truke jateko eta lo egiteko aukera daukazu. «Baigorriko ostatu eder batean lo egin genuen.»

alokatu:

errentan hartu. «Aurtengo udarako etxe txiki bat alokatu dute Hendaian.»



ULERMENA

Erantzun itzazu galdera hauek:

1.- Norman Gortsbyren ustez, noren ordua da ilunabarra?

2.-Nor zen Gortsbyren ondoan jesarri zen lehen pertsona?

3.- Ondoren, beste pertsona bat etorri zen. Nor da? Nola zegoen?



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



4.- Zer gertatu zitzaion gazteari?

5.- Zer kontatu zion Normanek gazteari bere kezka entzun eta gero?

6.- Zer eskatu zion Gortsbyk bere istorioa sinistu ahal izateko?

7.- Zergatik atera zen Norman Gortsby mutilaren atzetik?

8.- Nor zegoen bankuan parkera bueltatu denean? Zertan ari zen gizona?

9.- Gazteak Norman engainatu zuen?



GRAMATIKA

Orduak

“Martxoaren hasierako eguna zen, eta **arratsaldeko sei eta erdiak** ziren”. (29. orrialdea)

Zer ordu da?

OrduAK dira (ordu biAK, hirurAK, bostAK, seiAK... Salbuespena: ordu batA)

OrduAK eta minutu_ dira (ordu biAK eta bost, hirurAK eta hogeitabi, seiak eta hamar, ordu batA eta hogeitabost, lauRak eta laurden...)

OrduAK minutu_ gutxi(ago) dira (ordu biak bost gutxi(ago), seiak hamar gutxi(ago), zazpiAK hogeitabi gutxi(ago)...))

Ordu_ eta erdiAK dira (hamabi eta erdiAK, zazpi eta erdiAK, lau eta erdiAK...)

Idatzi letraz ordu hauek:

12:05: _____

09:20: _____

01:10: _____

10:45: _____

15:30: _____



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



07:55: _____

02:30: _____



HIZTEGIA

1.-Bilatu liburuan hitz hauen sinonimoak:

Taberna
Adineko gizona
Gerizpe(a)
Zelai(a)
Duda

Kontaketa
Itxaropenarik gabe egon
Intentzio(a)
Triste
Eta listo!

2.-Orain, binaka jarrita, esaldiak sortu hitz horiek erabiliz.



MINTZAMENA

• Nortzuk dira? Nola bizi dira?

«Agure hori, segur aski, etxe apal zikin batean bizi da, eta etxekoek ez dute maite». Norman Gorstbyk parkeko jendearen bizimodua asmatzen zuen. Orain zeuk asmatu behar duzu pertsona hauen bizimodua. Asmatu eta hitz egin.

- Hogei urteko neska bat
- Berrogei urteko gizon trajedun bat
- Errumaniako kale musikari zahar bat
- Mutil gazte maratoilari bat

• Hotelik onena

Ipuineko mutil gazteak bere hotelaren izena eta helbidea ahaztu ditu. Zuk ez, ezta? Erantzun eta hitz egin.

- Hotel askotan egon zara? Zein izan da onena?
- Non dago hotel hori? Zenbat izarrekoa da?
- Nolakoa da kanpotik? Eta barrutik?
- Zer nahiago duzu, hotela ala kanpina?

• Hotelak badauka garajerik?

Hotel batera heldu zara eta bertako zerbitzuak ezagutu nahi dituzu. Horretarako, elkarrizketa labur bat daukazu harrerako langile batekin. Jarri binaka eta elkarrizketa egin.

- Hotelak badauka garajerik?
- Bai, badauka garajea. / Ez ez dauka garajerik. (igerileku, gimnasio, sauna, ileapaindegi, Wifi...)



Ipuinaren harian

INGELESA ETA FRANTSESA



Normandoak. Ipuinaren denboran frantsesak prestigio handia zeukan Britainia Handian. Horregatik hitz egiten dute frantsesez ipuineko protagonista ingelesek.

Mila urte lehenago, XI. (hamaikagarren) mendean, frantsesa ez zen prestigiozko hizkuntza soilik,* nahitaezko* hizkuntza ere bazen orduan. Denbora hartan normandoek Britainia Handia konkistatu zuten eta, beti bezala, beren hizkuntza inosatu zuten.

Frantsesaren eragina.* Normandoak hirurehun urtez egon ziren agintean* Britainia Handian. XIV. (hamalaugarren) mendean ingelesa ofizial egin zuten berriz uhartean, baina ordurako frantsesezko 10.000 (hamar mila) hitz baino gehiago zeuzkan!

Gaur egun alderantziz gertatzen da: orain ingelesak dauka prestigiorik handiena, eta frantsesak handik hartzen ditu hitz berriak.

soilik:

bakarrrik.

«—Pastarik nahi duzu?

—Bat hartuko dut soilik.»

nahitaezko:

derrigorrezkoa. «Motorrez ibiltzeko, nahitaezkoa da buruan kaskoa janztea.»

eragin:

zerbaiten indarra beste zerbaitetan. «Jorge Oteizak eragin handia eduki du euskal artista gazteengan.»

aginte:

boterea. «Alemanian alderdi sozialistak hartu du agintea.»

? ULERMENA

Erantzun itzazu galdera hauek:

1.- Zer egiten zuen Covering familiak urtean zehar?

2.- Zergatik sartu nahi zuen Stossen andreak etxearen atzeko atetik?

3.- Nondik pasatu behar zuten Stossen andreak eta alabak etxera sartzeko?

4.- Nor zegoen baratzean?



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



5.- Nor zen Tarquin Superbus?

6.- Nola aurkitu zuten atea Stossen andreak eta alabak?

7.- Zein hizkuntzaz hasi zen hitz egiten Matilda ama-alabekin?

8.- Zergatik zigortu zuten Matilda?

9.- Zer zigor jarri zioten Matildari?

10.- Nola lortu zuten handik ateratzea Stossen andreak eta alabak?



HIZTEGIA

Deskribapenak

- “-Hori ez da oso bide **luzea**, ama?”. (37.orrialdea)
- “(…)ni ez nago urteko jairik **onena** galtzeko prest”. (38.orrialdea)
- “Tarquin Superbus oso animalia **berezia** zen”. (39.orrialdea)
- “**Erraldoia** zen, benetan”. (39.orrialdea)
- “Itxura **beldurgarria** dauka!” (39.orrialdea)
- “Zure lehengusua mutiko **jatorra** da, beraz!” (40.orrialdea)
- “Ez, guztiz **gorrotagarria** da!” (40.orrialdea)
- “**Zaila** da den-dena frantsesez esatea” (42.orrialdea)

1.-Lotu hitz hauek haien antonimoekin:

Luze(a)	Arrunt(a)
Onen(a)	Txiki(a)
Berezi(a)	Erraz(a)
Erraldoi(a)	Maitagarri(a)
Jator(ra)	Txarren(a)
Zail(a)	Labur(ra)
Gorrotagarri(a)	Zakar(ra)

2.-GARRI atzikia: irakurri definizioak eta asmatu zein den hitza:

- Beldurra ematen duen pertsona, filma...:
- Barre egiteko gogoia ematen duen pertsona, pasadizoa...:
- Poza ematen duen albistea, gertaera...:
- Aspertzen gaituena:

3.-Orain, binaka, pentsatu -GARRI daukaten bi hitz eta definitu, beste ikaskideek asmatzeko.



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



MINTZAMENA

• Ikasturte amaierako jaia

«Ni ez nago urteko jairik onena galtzeko prest», esan zuen Stossen andreak. Zuek ere ez zaudete ikasturte amaierako jaia galtzeko prest, ezta? Hitz egin eta antolatu.

- Noiz eta non egingo duzue jaia?
- Nor gonbidatuko duzue? Nor ez?
- Zer prestatuko duzue jateko?
- Nondik lortuko duzue dirua?

• Zenbat hizkuntza dakizu?

Matilda ingelesa da, baina ederki daki frantsesez. Zuk ere badakizu frantsesez? Galdetu eta hitz egin.

- Zenbat hizkuntza dakizu? Zeintzuk?
- Zertarako erabiltzen duzu bakoitza?
- Noiz hasi zinen euskara ikasten?
- Etxean eta kalean ere euskaraz egiten duzu?

• Nola esaten da ... euskaraz?

Askotan hitzak eta esaldiak itzuli behar ditugu hizkuntza batetik bestera. Nola esaten dira hitz hauek euskaraz? Galdetu elkarri: “Nola esaten da ... euskaraz?”.

Willkommen	Bona nit
Bon voyage!	I'll see you later
Moito obrigado	Je t'aime
¡Ni pensarlo!	Arrivederci, ...



Ipuinaren harian

IRLANDAKO HISTORIA LABUR-LABUR*



- K.o. V. (Kristo ondoko bosgarren) mendean San Patriziok Irlandan katolizismoa zabaldu zuen.
- XII. (hamabigarren) mendean ingelesek Irlanda menderatu* zuten indarrez.
- XVI. (hamaseigarren) mendean errege ingelesek protestantismoa onartu zuten. Irlandar katolikoak orduan haien aurka altxatu ziren.
- XIX. (hemeretzigarren) mendearen erdian Gosete* Handia gertatu zen. Milioi bat irlandar hil zen.
- XX. (hogeigarren) mendearen hasieran ingelesek Irlanda bitan banatu* zuten: hegoaldea katolikoentzat eta iparraldea protestanteentzat. Irlandar nazionalistek ez zuten onartu, eta hiru urteko gerra piztu zen orduan.
- XX. (hogeigarren) mendearen erdian Irlandak independentzia lortu zuen, baina, hala ere, Ipar Irlanda ingelesen eskuetan gelditu zen.

labur-labur:

hitz gutxitan. «Labur-labur kontatuko dizut filma.»

menderatu:

azpian hartu, konkistatu. «Erromatarrek ia Europa osoa menderatu zuten.»

gosete:

gose denbora, janaririk gabeko denbora luzea. «Gerra Zibila amaituta, gosetea egon zen.»

bitan banatu:

bi zati egin. «Korea bi zatitan banatuta dago: Ipar Korea eta Hego Korea.»



ULERMENA

Esan ezazu gertaera hauek egia ala gezurra diren:

1.- Orain dela 300 urte galeoi bat iparraldeko badian hondoratu zen.

EGIA GEZURRA

2.- Adituek uste zuten itsasontziak altxor handia zeramala.

EGIA GEZURRA

3.- Lulu, Dulvertongo dukesak, Monakoko printzearen jauregian lan egin zuen eta itsas azpitik ateratzeko teknikak ikasi zituen.

EGIA GEZURRA



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



4.- Hirurehun urtetan askotan saiatu ziren itsasontzitik altxorra ateratzen.

EGIA GEZURRA

5.- Dukesak 1800 liberako aparatua erosi zuen altxorra uretatik ateratzeko.

EGIA GEZURRA

6.- Aparatu berria Luluk erabiliko du.

EGIA GEZURRA

7.- Aparatuaren probetan, itsas azpian, beste itsasontzi bat topatu zuten.

EGIA GEZURRA

8.- Lulu Sub-Rosa txalupako paperetan azaltzen den eskandaluaren parte da.

EGIA GEZURRA

9.- Luluk paperena inori ez kontatzeko gomendatu zion Vascori, baina bera ez zegoen ados.

EGIA GEZURRA

10.- Monakoko izebak beste aparatua baten berri eman zion Luluri eta asko poztu zen.

EGIA GEZURRA



GRAMATIKA

Zenbakiak

“Orain 300 (**hirurehun**) urte inguru, galeoi handi batek hondoa jo zuen iparraldeko badian eta hantxe gelditu zen betiko”. (49.orrialdea)

“Aparatuagatik 1800 (**mila zortziehun**) libera ordaindu zituen, eta patenteagatik askoz gehiago”. (50.orrialdea)

0 : zero	17 : hamazazpi	100 : ehun
1 : bat	18 : hemezortzi / hamazortzi	101 : ehun eta bat
2 : bi	19 : hemeretzi	200 : berrehun
3 : hiru	20 : hoge	300 : hirurehun
4 : lau	21 : hogeita bat	400 : laurehun
5 : bost	22 : hogeita bi	500 : bostehun
6 : sei	23 : hogeita hiru	600 : seiehun
7 : zazpi	30 : hogeita hamar	700 : zazpiehun
8 : zortzi	31 : hogeita hamaika	800 : zortziehun
9 : bederatzi	38 : hogeita hemezortzi	900 : bederatziehun
10 : hamar	39 : hogeita hemeretzi	1000 : mila
11 : hamaika	40 : berrogei	1200 : mila eta berrehun
12 : hamabi	50 : berrogeita hamar	1201 : mila berrehun eta bat
13 : hamahiru	60 : hirurogei	2000 : bi mila
14 : hamalau	70 : hirurogeita hamar	10.000 : hamar mila
15 : hamabost	80 : laurogei	100.000 : ehun mila
16 : hamasei	90 : laurogeita hamar	1.000.000 : milioi bat



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



1.-Letraz idatzi:

11: _____
 25: _____
 43: _____
 98: _____
 37: _____
 62: _____
 79: _____
 106: _____
 293: _____
 774: _____
 1985: _____
 2022: _____



HIZTEGIA

Hitz hauek ipuinean agertu dira. Txertatu esaldietan:

Altxor	Ikertu
Aditu	Lehenbailehen
Itxaropen(a)	Samar(a)
Otarrain(a)	Bai horixe!
Patrika	Eraiki
Margolari(a)	Zuzen ibili

- 1-Zientzialariek gaixotasun arraro hori _____ nahi dute.
- 2-Ane ordenagailuak konpontzen _____ da. Oso ondo egiten du!
- 3-Gure herrian etxebizitza asko _____ dituzte azken urteetan.
- 4-_____ oso langile ona da. Gure etxea primeran uzten ari da.
- 5-Asierri loteria tokatu zaio eta ospatzeko _____ erosi du afaltzeko!
- 6-Zure ama _____ da beti... Arrazoi osoa dauka.
- 7-Nire ustez, egin duzun marrazkia polit _____ da. _____!
- 8-Piratek hilabeteetan zehar nabigatu zuten _____ hori aurkitzeko!
- 9-Azken eguna da jairako sarrera erosteko! _____ erosi behar dugu!
- 10-Umeak paga galdu du eta _____ begiratzen ari da denbora guztian... Gizajoak aurkitzeko _____ dauka.



MINTZAMENA

• Itsasoa eta zu

Ipuin honetan itsasoa, itsasontziak eta itsas azpiko altxorrak agertzen dira. Gustatzen zaizu itsasoa? Erantzun eta hitz egin.

- Badakizu igeri egiten? Noiz eta non ikasi zenuen?
- Arrantzan ibili zara inoiz itsasoan?
- Itsasoko zer kirol gustatzen zaizu?
- Itsasontziz ibili zara inoiz? Nondik nora?



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



• Senideak

«Vascok senide asko zeukan eta ederki moldatzen zen haien guztien kontura bizitzen», esaten du ipuinak. Senide asko daukazu zuk? Erantzun eta hitz egin.

- Zenbat neba-arreba zarete? Nolakoak dira?
- Zenbat lehengusu-lehengusina daukazu?
- Askotan ikusten dituzu senideak?
- Noren antzekoa zara zu?

• Zer egingo duzu hemendik aurrera?

«Hemendik aurrera ez dut ezer ere egingo», esan zuen Vascok, “itsas azpiko altxorra” lortu eta gero. Pentsatu apur batez: Vasco zara eta oso aberatsa zara. Zer egingo duzu hemendik aurrera? Pentsatu eta esan.

- Lan egingo duzu? Zertan?
- Etxerik egingo duzu? Nolakoa?
- Bidaiarik egingo duzu? Nora?

7.ipuina: Oiloa

Ipuinaren harian

VIKTORIA ERREGINA



Agintaldi* luzea. Britainia Handiko errege eta erreginen artean inork ez du Viktoria erreginak baino urte gehiago egin agintean. Viktoria 64 (hirurogeita lau) urtez izan zen britainiarren erregina.

Haren agintaldiaren hasieran Britainia Handia nekazarien* lurraldea zen, baina amaieran, 1901ean (mila bederatziehun eta batean), guztiz industrialia zen. Britainiarren Inperioa kontinente guztietara heldu zen XIX. (hemeretzigarren) mendean.

Moral zorrotza. Zientzian eta teknologian aurrerapauso* handiak egon ziren, baina gizartean atzerapauso nabariak.* Moralean, adibidez.

Viktoria erreginak oso moral zorrotza inposatu zuen. Egiazko fede bakarra, puritanismo handia eta lege piloa. Gauzak horrela, herritarrek laster ikasi zuten gauza bat esaten, baina beste bat egiten...

agintaldi:

politikarien aginte denbora. «Demokrazia gehienetan presidentearen agintaldia lau edo bost urtekoa izaten da.»

nekazari:

langile honek lurra lantzen du. «Baserritarrak Euskal Herriko nekazariak dira.»

aurrerapauso:

aurrerapena. «Azken urteotan informatikak aurrerapauso handiak egin ditu.»

nabari:

begien bistakoa. «Munduan klima aldatzen ari da. Oso nabaria da.»



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



ULERMENA

Esan ezazu gertaera hauek egia ala gezurra diren:

- 1.- Jane Martlet andrea Sangrail andrearen eta Clovis semearen etxean hamabost egunetan egongo da.
EGIA GEZURRA
- 2.- Dora Bittholz eta Jane Martlet oso lagun onak dira orain.
EGIA GEZURRA
- 3.- Dorak oilo bat saldu zion Janeri, Leghorn izenekoa.
EGIA GEZURRA
- 4.- Oiloak ez zuen arrautzarik ipini eta horregatik haserretu zen Jane Dorarekin.
EGIA GEZURRA
- 5.- Janek barkamena eskatu zion Dorari.
EGIA GEZURRA
- 6.- Sturridge oso etxezain ona zen.
EGIA GEZURRA
- 7.- Sturridgek Jane gorrotatzen zuen eta hil nahi zuen.
EGIA GEZURRA
- 8.- Jane irakurtzen ari zen egongelan Sturridge ezpata eskuan sartu zenean.
EGIA GEZURRA
- 9.- Clovisen planak porrot egin zuen.
EGIA GEZURRA
- 10.- Jane joan zen egun hartan heldu zen Dora Clovis-en etxera.
EGIA GEZURRA



GRAMATIKA

Nor-nork: orainaldiaren errepassoa

- “-Batzuetan begitan hartzen **du** gonbidatu bat”. (62.orrialdea)
“Noizean behin gonbidaturen bat aukeratzen **du**”. (63.orrialdea)
“Zu aukeratu **zaitu**”. (63.orrialdea)
“Norbaitek hil beharko du, ba!”. (64.orrialdea)
“-Kontu handiz zaindu beharko nauzu, ba”. (64.orrialdea)

Osatu esaldiak nor-nork erabiliz:

- Enpresak gu proiektu hori egiteko aukeratu _____
- Irakasleak ni begitan hartu _____
- Guk erosketak egingo ditugu eta zuek umeak zainduko _____



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



- Nahi baduzu, gero gonbidatuko _____ kafe bat hartzera (nik)
- Lehen nik zuek ikusi _____ baina azkar joan zarete eta ez _____ agurtu.
- Mozorratuta etorri naiz eta hasieran inork ez _____ ezagutu.
- Gure semeak Naia eta Uxue izugarri maite _____, eta Naiak eta Uxuek ere izugarri maite _____ gure semea.
- Ez daukagu autorik, eraman ahal _____ zuk?



HIZTEGIA

Hitz hauek ipuinean agertu dira. Txertatu esaldietan:

lagun min(ak)	aholku
erru(a)	aspaldian
eztabaida	mehatxu
elkarrekin	porrot egin
ordezko(a)	bururatu
otordu	jaso

- 1-Mezu arraro bat _____ dut.
- 2-_____ bazkalduko dugu?
- 3-Ideia eder bat _____ zait!
- 4-_____ joan zen atzerrira.
- 5-_____ gogorra izan zuten, baina oraindik _____ dira.
- 6-Gaur ez da gure irakaslea etorri, _____ etorri da.
- 7-Hanka sartzen duzunean, beti gauza berbera esaten duzu: “Ez da nire _____ izan!”
- 8-Nire ustez, bost _____ egitea komenigarria da: gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, askaria eta afaria.
- 9-Arbitroak txartela ateratzeko _____ egin dio jokalaria.
- 10-Ez dakigu zer egin eta zuen _____ behar dugu.
- 11-Negozioak _____ du.



MINTZAMENA

• Haserre nago zurekin!

Dora eta Jane haserre daude eta kristorenak esaten dizkiote elkarri. Bilatu arrazoiren bat eta haserretu lagun batekin. Beheko esapideak erabili ahal dituzu. Asmatu eta antzeztu elkarrizketa lagun batekin.

Zoaz pikutara!	Utzi bakean!
Lotsagabe hutsa zara!	Egon isilik, kaiku hori!
Gezur galanta, aizu!	Ez daukazu arrazoirik!
Ergel halakoa!	Txantxetan zabilta, ala?

• Eszena beldurgarria

«Janek urrunetik ikusi zuen Sturridge. Berarengana zetorren eta eskuan ezpata handi zorrotz bat zekarren». Beldurrezko film baten eszena ematen du. Gogoratu eta komentatu.

- Beldurrezko zer film ikusi duzu?
- Zer eszena gogoratzen duzu ondo?
- Zer gertatzen da eszena horretan?



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



• Telegrama

Janek gezurrezko telegrama bat bidaliko dio Clovisen amari. Zuk orain beste bat idatziko duzu kontestu hauetako batean. Idatzi telegrama eta irakurri lagunei.

- Lagun batzuek umetxo bat izan dute.
- Amerikako osaba aberatsa hil da.
- Garrantzi handiko azterketa bat gainditi duzu.
- Dirua eskatu behar diezu gurasoei.

8. ipuina: Trastelekua

Ipuinaren harian

UMEEN AISIALDIA*



Asteburuak. Asteburuetan familiak parkeetara joaten ziren egun-pasa.* Nagusiek musika banda entzuten zuten, eta umeak jolasten ibiltzen ziren inguruan. Gero parkean bertan bazkaltzen zuten.

Zooa eta zirkoa. Hiri batzuetan zooa egoten zen, eta umeek bertan elefante eta gameluen gainean ibiltzeko aukera zeukaten. Bestalde,* zirkoa herririk herri ibiltzen zen umei “munduko gauza harrigarrienak” erakusten.

Hondartza. XIX. (hemeretzigarren) mendean jendeak tren hartu eta hondartzara joaten hasi zen. Han bainujantzi luzea jantzi eta bainua hartzen zuten. Umeak orduan hasi ziren hondartzan izozkiak jaten.

Ume pobreak. Ume gehienak pobreak ziren. Ez ziren eskolara joaten eta lan egin behar zuten. *Band of Hope (Itxaropenaren Taldea)* izeneko elkarteak* hondartzara eta zirkora eramaten zituen ume pobreak.

aisialdi:

denbora librea. «Uda da urtarorik onena aisialdia aprobetxatzeko.»

egun-pasa:

eguna pasatzera. «Datorren igandean Baztanera joango gara egun-pasa.»

bestalde:

beste alde batetik. «Internet mundua ikusteko leihoa da. Bestalde, hizkuntzak ikasteko tresna ere bada.»

elkarte:

elkartean pertsonak zerbait lortzeko batzen dira. «Medicus Mundi elkarteak lan ederra egiten du herrialde pobreetan.»



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



ULERMENA

Erantzun itzazu galdera hauek:

1.- Zergatik zegoen zigortuta Nicholas?

2.- Zer zegoen Nicholas-en katiluan? Nork jarri zuen hor eta zertarako?

3.- Zer egiten zuen Nicholas-en izebak ume bat zigortu eta gero?

4.- Zer esan zion Nicholas-ek izebari txarto sentitzeko?

5.- Izebak zer debekatu zion egitea?

6.- Nicholas berotegian sartu zen? Zer egin zuen?

7.- Zer topatu zuen Nicholas-ek trastelekuan? Zer gordetzen zuen han izebak?

8.- Zer gertatu zitzaion izebari Nicholas trastelekuan egon bitartean?

9.- Zer esan zion Nicholas-ek izebari laguntza eskatu zionean? Zergatik?

10.- Nork atera zuen izeba putzutik?



GRAMATIKA

Egon eta Eduki

“Arratsalde hartan umeak Jagborougheko hondartzara joatekoak ziren. Nicholas, ordea, ez zen joango; bera zigortuta **zegoen**”. (69. orrialdea)

“Nicholas birritan sartu zen lorategira. Egia esan, ez **zeukan** berotegira sartzeko asmorik [...]”. (71. orrialdea)

“Lau otsoak landareen artean ezkutatuta **zeuden** [...]”. (72. orrialdea)

“-Zure bila ibili naiz berotegian eta putzura erori naiz. Zorionez ez **dauka** urik, baina ezin naiz irten.” (74. orrialdea)



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



<u>EGON</u>	<u>ORAIN</u>	<u>LEHENALDIAN</u>
NI	NAGO	NENGOEN
HURA	DAGO	ZEGOEN
GU	GAUDE	GEUNDEN
ZU	ZAUDE	ZEUNDEN
ZUEK	ZAUDETE	ZEUNDETEN
HAIEK	DAUDE	ZEUDEN

<u>EDUKI</u>	<u>ORAIN</u>	<u>LEHENALDIAN</u>
NIK	DAU(Z)KAT	NEU(Z)KAN
HARK	DAU(Z)KA	ZEU(Z)KAN
GUK	DAU(Z)KAGU	GENEU(Z)KAN
ZUK	DAU(Z)KAZU	ZENEU(Z)KAN
ZUEK	DAU(Z)KAZUE	ZENEU(Z)KATEN
HAIEK	DAU(Z)KATE	ZEU(Z)KATEN

Osatu esaldiak:

- Umeak bustita _____ / _____ putzuetan jolasten ibiltzeagatik.
- Nik 6 urte _____ dantza eskolan ikasten hasi nintzenean. Orain 26 urte _____ eta oraindik dantza maite dut.
- Zuek aste honetan oso pozik _____ zubia edukiko dugulako. Pasa den astean ez _____ hain alai!
- Zuk iaz bi auto _____ . Zenbat _____ orain?
- Haiek abuztuaren 6an Parisen _____ , baina orain Bilbon _____ .
- Hark ez _____ dirurik. Horregatik, ezin izan zuen ezer erosi.
- Gu oso pozik _____ berriak entzun genituen arte. Orain, ordea, triste _____ .



HIZTEGIA

1.-Lotu hitz hauek haien antonimoekin:

Ezinezko(a)	Gozatu
Zigortu	Astiro
Zatar(ra)	Baimendu
Laster	Leunki
Debekatu	Eder(ra)
Zakarki	Egingarri(a)(k)
Sufritu	Saritu



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



2.-Orain, binaka jarrita, txertatu esaldietan:

- Hau bai leku _____ oporrak pasatzeko! Maiteminduta nago!
- Nork _____ dizu zuri gaueko 11ak arte kalean ibiltzea?
- Irakasleek ikasleen jarrera ona _____ dute gaur, horregatik joan dira zinemara.
- _____ joan! Korrika egiten baduzue lurrera eroriko zarete!
- Amamari esaten badiozu, _____ esan. Badakizu ez zaiola ideia batere gustatuko...
- Aititek beti esaten digu gaztaroaz _____ behar dugula... Ez badugu orain egiten, noiz egingo dugu?
- Jarri dituzun urte berrirako asmoak _____ dira, baina azkar hasi beharko duzu!



MINTZAMENA

• Ez zait gustatzen!

«Goiz hartan esne zopak jarri zizkieten gosaritarako, baina Nicholasek ez zituen ukitu ere egin». Txikitan denoi gertatzen zitzaigun berdin, ezta? Gogoratu eta esan lagunei.

- Zer janari ez zitzaizun gustatzen txikitan?
- Zer egiten zenuen janari hura ez jateko?
- Gaur egun zer ez zaizu gustatzen?
- Zein da zure gustuko gosaria?

• Txikitako jolasak

«Umeak itzel dibertituko dira», esan zuen izebak, baina egun hartan ez ziren batere dibertitu hondartzan. Gogoratu eta esan lagunei.

- Zertan jolasten zinen txikitan?
- Zenbat jostailu zeneukan? Zeintzuk?
- Kalean ere jolasten zinen? Norekin?
- Neskak eta mutilak elkarrekin jolasten zineten?

• Zure trastelekua

«Nicholas liluratuta zegoen trastelekuko gauza zahar guztiei begira».

a) Pentsatu eta hitz egin.

- Badaukazu trastelekurik etxean?
- Non gordetzen dituzu gauza zaharrak?
- Zer gordetzen duzu eta zer ez duzu gordetzen?

b) Egin zerrenda: zeure etxeko gauzetatik, zeintzuk dira benetan beharrezkoak? Zeintzuk bota ahal dituzu?



Ipuinaren harian

ESKOLA BRITAINIA HANDIAN



Ikasgela. Orain dela ehun urteko eskoletan Britainia Handiko mapa handi bat egoten zen horman zintzilikatuta.* Lur globoa ere egoten zen, geografia ikasteko, eta haren ondoan abakoa, zenbatzen ikasteko. Umeak eserleku luze batzuetan jesartzen ziren eta klariona erabiltzen zuten, arbel txiki batzuetan idazteko.

Irakasgaiak.* Neskak eta mutilak banatuta zeuden eskolan. Mutilek matematika, fisika eta marrazketa teknikoak ikasten zituzten, industrian lan egiteko. Neskek, ordea, janariak prestatzen eta josten* ikasten zuten, etxekoandreak izateko.

Zigorrak. Orduko irakasleek askotan zigortzen zituzten umeak. Batzuetan makila batez jotzen zituzten, eta beste batzuetan esaldiak kopiatzeko agintzen zieten. Ehun aldiz idatzi behar zuten esaldi hau: «Eskolako egunak nire bizitzako egunik onenak dira». Benetan...?

zintzilikatu:

zerbait altura batean goitik lotuta eta behetik libre utzi. «Zintzilikatu jaka armairuan, mesedez.»

irakasgai:

asignatura. «Nire gustuko irakasgaia Kimika da.»

josi:

hariaren eta orratzaren bidez arropak lotu. «Amonak eskuz josi dit soineko hau.»



ULERMENA

Esan ezazu gertaera hauek egia ala gezurra diren:

- 1.- Marion Eggelby andreak beti hitz egiten zuen bere seme-alabez.
EGIA GEZURRA
- 2.- Clovisek ez zeukan Eggelby andreari Erici buruz hitz egiten entzuteko gogorik.
EGIA GEZURRA
- 3.- Mundu guztiak gorrotatzen zuen Eric, Eggelby andrearen semea.
EGIA GEZURRA
- 4.- Eric oso ona zen bridgean jokatzen.
EGIA GEZURRA
- 5.- Clovisen ustez, dama-jokalariak askotan gaizkileak dira.
EGIA GEZURRA
- 6.- Clovisek ez zeukan argi zer den ongia eta zer den gaizkia.
EGIA GEZURRA
- 7.- Clovisek inoiz ez ditu ahazten garrantzizko gauzak.
EGIA GEZURRA
- 8.- Hildegarde Shrubley-ren lehen senarra burtsarieta karta apustuei esker aberastu zen.
EGIA GEZURRA
- 9.- Hildegarde Shrubley-k otarraina lau modu desberdinetan prestatzen irakatsi zion Eggelby andreari.
EGIA GEZURRA
- 10.- Clovis oso pozik geratu zen, azkenean Eggelby andreari Eric-i buruz hitz egiten utzi ez ziolako.
EGIA GEZURRA



GRAMATIKA

Nominalizazioak

- “Haien ama ez zegoen inolako ere isiltzeko prest”.(79.orrialdea)
“Ez zegoen inola ere hirugarren seme batenak entzuteko prest”.(79.orrialdea)
“Zuen seme hori ezagutzeko irrikaz nago”.(84.orrialdea)
“Eggelby andreak hitz egiten jarraitu zuen”. (79.orrialdea)
“(…)Lagunen kartak gogoratzen saiatzen ari zara”.(80.orrialdea)
“(…)Dama-jokoan ibiltzen irakatsi diegu”.(80.orrialdea)
“-Tira, gurasoek ongia eta gaizkiaren arteko aldea ikusten irakatsi zidaten”.(81.orrialdea)



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



Osatu esaldiak -T(Z)EN edo -T(Z)EKO erabiliz:

- Aurten euskaraz gehiago hitz egin _____ saiatuko naiz.
- Ikastaro horretan janari japoniarra prestatu _____ ikasi dugu.
- Gurasoek seme-alabei denetarik jan _____ irakatsi diete.
- Datorren urtean jokalaria horrek ez du jokatu _____ jarraituko.
- Gogor lan egin _____ prest gaude.
- Bazaude niri lagun _____ prest?
- Bidaia bat egin _____ irrikaz nago.
- Ariketa hau amaitu _____ gogo handia daukagu.



MINTZAMENA

• Ongia eta gaizkia

«Zer dago ongi? Eta zer dago gaizki? Nik neuk askotan ez ditut hain erraz bereizten», esan zion Clovisek Ericen amari. Zer moduz bereizten dituzu zuk ongia eta gaizkia? Jarri adibideak eta komentatu.

ONGI DAGO

GAIZKI DAGO

—.....
—.....
—.....

—.....
—.....
—.....

• Ahaztu eta gogoratu

«Garrantzizko gauzak ahaztu egiten ditugu eta garrantzirik gabekoak primeran gogoratzen ditugu», esan zuen Clovisek. Zuri berdin gertatzen zaizu? Erantzun galderei.

- Zer moduzko oroimena (memoria) daukazu?
- Garrantzizko gauzak ahazten dituzu?
- Zer egiten duzu gauzak ez ahazteko?
- Zer dakizu buruz esaten?

• Ongi hezita

«Gure seme-alabak oso ongi hezita daude», esan zuen Eggelby andreak, bere denborako hezkuntza gogorra deskribatzeko.

a) Pentsatu, konparatu eta hitz egin.


- Nolakoa izan zen zuen gurasoen hezkuntza?
- Nolakoa izan da zuen hezkuntza?
- Eta oraingo ume eta gazteena?

b) Egin zerrendak: alde batetik, aipatu heziera oneko portaerak eta, bestetik, heziera txarrekoak.



Ipuinaren harian

UMORE INGELESA



Nolakoa da? Sakiren ipuinak umore ingelesaren adibide moduan hartzen dira. Baina hona* galdera: nolakoa da umore ingelesa?

- **Ironikoa.** Pertsonaiek ez dituzte gauzak zuzenean esaten, ironiaz eta burlaizez* baizik.
- **Zorrotza.** Umore ingelesak erlijioa, ohiturak eta kontserbadurismoa kritikatzeko ditu.
- **Beltza.** Txiste ingelesak ez dira inozoak eta zuriak, gordinak* eta beltzak baizik.
- **Dotorea.** Pertsonaien hizkera ez da zakarra, fina eta dotorea baizik.
- **Sakona.** Batzuetan gauzak bi aldiz entzun behar dituzu, haien esanahia ondo ulertzeko.

Adibide txiki bat

—Esan, mutiko, otoitz egiten* duzu jan aurretik?
—Ez, apaiz jauna; gure ama oso sukaldari ona da.

hona ...:

hemen dago ..., hauxe da ...
«Zorionak, Maider. Hona gure oparia. Zabaldu paketea.»

burlaize:

burla gaiztoa, sarkasmoa.
«Mus txapelketan azkenak izan ginen, eta lagunek burlaizez "Zorionak, txapeldunak" esan ziguten.»

gordin:

gogorra. «Siberiako negu gordinean hotz handiak egiten ditu.»

otoitz egin:

errezatu. «Musulmanek egunean bost aldiz otoitz egin behar dute Mekara begira.»



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



ULERMENA

Erantzun itzazu galdera hauek:

1.- Noiz hilko zen Laura?

2.- ...Baina noiz hil zen azkenean?

3.- Lauraren ustez, zer bihurtuko zen?

4.- Zergatik berpiztuko zen igaraba baten itxuran?

5.- Zertan edo zer egiten ematen dute egun osoa igarabek?

6.- Igaraba izan eta gero, zer bihurtuko zen Laura?

7.- Zergatik galdu zituen Egbert-ek, Amandaren senarrak, Sussex oilo guztiak?

8.- Zer egin zuen Egbert-ek igarabarekin?

9.- Zer proposatu zion Egbert-ek Amandari Amanda lasaitzeko eta sendatzeko?

10.- Egbert-en arabera, nor satu zen haien logelan eta zer egin zuen?



MINTZAMENA

• Animaliei buruz

«Igarabek egun osoa ematen dute ibaian gora eta ibaian behera igerian, arrainak jaten eta jolasten». Ados zaude Laurarekin? Igaraba animalia maitagarria da?

a) Egin animalien zerrendak eta azaldu zergatik.

MAITAGARRIAK

BELDURGARRIAK

—.....

—.....

—.....

—.....

—.....

—.....

b) Jolastu. Txandan-txandan, animalia izen bat esan behar duzue, norbaitek huts egin arte.



Piztiak eta piztitzarrak Lanketa didaktikoak



- **Lagunak eta animaliak**

«Ni igaraba moduan berpiztuko naiz, segur aski», esan zuen Laurak eta igaraba moduan berpiztu zen. Zuk nola ikusten dituzu lagunak? Begiratu ingurukoei eta esan.

- Zer animalia-aren itxuran ikusten dituzu lagunak?
- Nolako izaera izango du lagun bakoitzak?

- **Luxuzko itsasontzi batean**

«Handik egun batzuetara bidaia polit bat egiten ari ziren Laura eta bere senarra Nilo ibaian zehar luxuzko itsasontzi batean».

a) Antolatu bidaia eta komentatu lagunekin.

- Nondik nora joango zara luxuzko bidaia horretan?
- Zer-nolako zerbitzuak dauzka itsasontziak?
- Norekin joango zara? Zer egingo duzue?

b) Pentsatu: zer opari ekarriko diezu lagunei leku exotiko horietatik?



ZURE IRITZIA

1.- Zein da gehien gustatu zaizun ipuina? Zergatik?

2.- Umore ingelesa gustatzen zaizu?

3.- Irakurzalea zara? Zer genero gustatzen zaizu?

4.- Zer irakurtzen ari zara momentu honetan?

5.- Zein liburu gomendatzen diezu zure ikaskideei?
